ARBIZU

ARBIZUKO UDALA
www.arbizu.eus

Nafarroako Gobernua
NAFARROAKO KIROL JOKUAK

ARBIZUKO V. HAUR DUATLOIA

NAFARROAKO KIROL JOKOAK

AURKIBIDEA

		Orrialdea
1.	Data, tokia eta kokalekua……	2
2.	Partaideak……	3
3.	Ibilbideak:	
3.1.	Aurrebenjaminak……..	4-5
3.2.	Benjaminak……..	6-7
3.3.	Alebinak……..	8-9
3.4.	Haurrak…….	10-11
4.	Izen emateak……...	12
5.	Arautegia……	13
6.	Informazio interesgarria……..	14

1. DATA, TOKIA ETA KOKALEKUA

DATA: 2017ko martxoak 25

ORDUA: 1.go lasterketaren hasiera: 10etan

DORSAL JAKINARAZPENA, MARKATZEA, BOXAK ETA HELMUGA: Arbizuko Udalean, herriko plazan.

IRTEERA: Arbizuko plazan.

ARBIZU

2. PARTAIDEAK

Hurrengo taulan ikusi daitezke material kontrol eta lasterketa hasieraren ordutegiak, maila desberdinak (emakume zein gizonezkoentzat), dagozkien jaiotze datak eta bakoitzak egin beharreko distantzia.

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	MAILAK	ADINA	DISTANTZIAK 1.go KORRIKA	DISTANTZIAK BIZIKLETA	DISTANTZIAK 2. KORRIKA
9:30-9:45	**10:00**	**Aurreben jaminak**	**7,8**	240 m Bira 1 K2 zirkuitoari	900 m Bira 1 B1 zirkuitoari	125 m Bira 1 K1 zirkuitoari
9:30-9:45	**10:20**	**Benjaminak**	**9,10**	400 m Bira 1 K3 zirkuitoari	1800 m 2 Bira B1 zirkuitoari	240 m Bira 1 K1 zirkuitoari
10:35-10:50	**10:55**	**Alebinak**	**11,12**	875 m 2 Bira K3 zirkuitoari	3910 m 2 Bira B2 zirkuitoari	475 m Bira 1 K3 zirkuitoari
10:35-10:50	**11:25**	**Haurrak**	**13,14**	1475 m 2 Bira K4 zirkuitoari	7700 m 4 Bira B2 zirkuitoari	800 m Bira 1 K4 zirkuitoari

Kadeteek helduen proban parte hartuko dute, distantzia erdia eginez (4km-16 km-2km). **Juniorrek** helduen aukera berdinak dituzte (8km-32km-4km)edo (4km-16 km-2km)
Helduen proba egun berean eginen da 15:30etan.

3. IBILBIDEAK

3.1. AURREBENJAMINAK

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	MAILAK	ADINA	DISTANTZIAK 1.go KORRIKA	DISTANTZIAK BIZIKLETA	DISTANTZIAK 2. KORRIKA
9:30-9:45	**10:00**	**Aurreben jaminak**	**7,8**	240 m Bira 1 K2 zirkuitoari	900 m Bira 1 B1 zirkuitoari	125 m Bira 1 K1 zirkuitoari

1.GO LASTERRALDIA: "KORRIKA 2: K2"(240 m)
Plaza aurrean hasiko da korrikaldia, Kale Nagusian, Uhalde kalea, Eskola atzekaldea eta kale Nagusira boxeetan sartzeko

2. LASTERRALDIA: "KORRIKA 1: K1" (125 m)
Boxeetatik aterako dira Kale Nagusian gora egingo dute, laster pibotean 180ºko buelta eta beherantz joango dira Helmugara.

K1 eta K2



BIZIKLETA (900 m)
Boxeetatik atera eta kale Nagusitik joango dira, ezkerrera hartuko dute Yeregiren etxetik, zubia pasatu eta Akerruntza kalera iristeko, berriz ezkerrera egingo dute Iruñeko Etorbidetik, gero ezkerrera Fernando Urkia kalera eta Kale Nagusian agertuko dira, boxeetara sartuz.

B1



3.2. BENJAMINAK

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	MAILAK	ADINA	DISTANTZIAK 1.go KORRIKA	DISTANTZIAK BIZIKLETA	DISTANTZIAK 2. KORRIKA
9:30-10:00	**10:20**	**Benjaminak**	**9,1**	400 m Bira 1 K3 zirkuitoari	1800 m 2 Bira B1 zirkuitoari	240 m Bira 1 K1 zirkuitoari

1.GO LASTERRALDIA: "KORRIKA3: K3" (400 m)
Plaza aurrean hasiko da korrikaldia, Kale Nagusian gora egingo dute, laster eskubira joango dira Errekondotik, berriz eskubira Beldarrain bidea hartzeko, ondoren eskubira Fernando Urkia kalea eta azkenik, eskubira Kale Nagusira boxetan sartzeko.

2. LASTERRALDIA: "KORRIKA 1: K1" (240 m)
Boxetatik aterako dira Kale Nagusian gora egingo dute, laster pibotean 180ºko buelta eta beherantz joango dira Helmugara.

BIZIKLETA (1800 m)
Boxeetatik atera eta kale Nagusitik joango dira, ezkerrera hartuko dute Yeregiren etxetik, zubia pasatu eta Akerruntza kalera iristeko, berriz ezkerrera egingo dute Iruñeko Etorbidetik, gero ezkerrera Fernando Urkia kalera eta, eskola atzetik Uhalde kalea hartuko dute, 2. birari hasiera emateko. 1.go birako toki berdinetik Kale Nagusian agertuko dira, boxeetara sartuz.

B1



3.3. ALEBINAK

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	MAILAK	ADINA	DISTANTZIAK 1.go KORRIKA	DISTANTZIAK BIZIKLETA	DISTANTZIAK 2. KORRIKA
10:35-10:50	**10:55**	**Alebinak**	**11,12**	875 m 2 Bira K3 zirkuitoari	3910 m 2 Bira B2 zirkuitoari	475 m Bira 1 K3 zirkuitoari

1.GO LASTERRALDIA: "KORRIKA 3: K3" (875 m)
Plaza aurrean hasiko da korrikaldia, Kale Nagusian gora egingo dute, laster eskubira joango dira Errekondotik, berriz eskubira Beldarrain bidea hartzeko, ondoren eskubira Fernando Urkia kalea eta azkenik, eskubira Kale Nagusira boxeen ondoko pasilotik pasa eta bigarren buelta hasiko dute, aurreko ibilbide berdina egin eta boxeetan sartuko dira.

2. LASTERRALDIA: "KORRIKA 3: K3" (475 m)
Boxeetatik atera eta, Kale Nagusian gora egingo dute, laster eskubira joango dira Errekondotik, berriz eskubira Beldarrain bidea hartzeko, ondoren eskubira Fernando Urkia kalea eta azkenik, eskubira Kale Nagusira boxeen ondoko pasilotik helmugara sartzeko.

K3

BIZIKLETA (3910 m)
Boxetatik atera Kale Nagusian (25 zenbakian) ezkerrera, Yeregiren etxetik, ezkerrera eskola atzetik eta ezkerrera Fernando Urkia kaletik, San Juan bidea pasa eta ondoren

Kale nagusia, Yeregiren etxetik bigarren buelta hasiko dute. Buelta berdina egin eta bukaeran eskola atzetik, Kale Nagusira eta boxeetara sartuko dira.

B2



3.4. HAURRAK

MATERIAL KONTROLA	LASTERKETA	MAILAK	ADINA	DISTANTZIAK	DISTANTZIAK	DISTANTZIAK 2. KORRIKA

REN ORDUTEGIA	HASIERAREN ORDUTEGIA			1.go KORRIKA	BIZIKLETA	
10:35-10:50	**11:25**	**Haurrak**	**13,14**	1475 m 2 Bira K4 zirkuitoari	7700 m 4 Bira B2 zirkuitoari	800 m Bira 1 K4 zirkuitoari

1.GO LASTERRALDIA: "KORRIKA 4: K4" (1475 m)
Plaza aurrean hasiko da korrikaldia, Kale Nagusian gora egingo dute, eskubira joango dira Gartziandia etxean, eskubira Beldarrain kaletik jaitsiko dira, eskubira Fernando Urkia kalea eta azkenik, eskubira Kale Nagusira, boxeen ondoko pasilotik pasa eta beste bira bat zirkuito berdinari boxeetan sartzeko 2. bira bukatu ondoren.

2. LASTERRALDIA: "KORRIKA 4: K4"(800 m)
Boxeetatik atera eta Kale Nagusian gora egingo dute, eskubira joango dira Gartziandia etxean, eskubira Beldarrain kaletik jaitsiko dira, eskubira Fernando Urkia kalea eta azkenik, eskubira Kale Nagusira, boxeen ondoko pasilotik pasa eta Helmugara joango dira.

K4



BIZIKLETA (7700 m)

Boxetatik atera Kale Nagusian (25 zenbakian) ezkerrera, Yeregiren etxetik, ezkerrera eskola atzetik eta ezkerrera Fernando Urkia kaletik, San Juan bidea pasa eta ondoren

Kale nagusia, Yeregiren etxetik bigarren buelta hasiko dute. Buelta berdina egin lau aldiz eta bukaeran eskola atzetik, Kale Nagusira eta boxeetara sartuko dira.

B2



Haur mailako zirkuitoak, korrika eta bizikletan:



4. IZEN EMATEAK

Izen emateak on line egingo dira http://www.rockthesport.com/ helbidean astelehenerarte, martxoak 20, hau barne. **Ezin da izena eman probaren egunean**. Izen ematea dohainik da, froga hau Nafar Kirol Jolasen barne dagoelako. Partaide guztiak **federatuta** egon behar dute talde baten bitartez, **froga baino 10 egun lehenago gutxienez**. Federatzeko triatloi talde batera jo behar da.
Oharra: Kadeteek helduen orrian eman beharko dute izena.

5. ARAUTEGIA

1. Arbizuko V. Haur Duatloia Arbizuko udalak antolatzen du, Sakanako Mankomunitatea eta herriko kirol taldeen laguntzarekin.

2. Boxak 9:30etan zabalduko dira aurrebenjamin eta benjamin mailentzako, eta 9:45etan itxiko dira. Benjamin froga bukatu ondoren, 10:35etan, boxak zabalduko dira alebin eta haur mailentzako eta 10:50etan itxiko dira, alebinen froga hasi baino 5 minutu lehenago.

3. Dortsalak federaziotik hartu eta bere kirolariei banatzeaz klubak arduratuko dira

4. Oinezko eta bizikletako ibilbideak herrian zehar izango dira.

5. Bizikletako segmentuan kaskoa derrigorrezkoa da eta bizikleta mendikoa edo bideberrikoa izan daiteke.

6. Frogak irauten duen bitartean partaideek ezin dute kanpoko laguntzarik jaso, ezta ibilgailuen atzetik ibili ere ez.

7. Ibilbidea zaindua, markatua eta trafikoari itxita izanen da lasterketa bakoitzak irauten duen bitartean.

8. Parte-hartzaileak istripua edukiz gero, antolatzaileak ez dute inongo erantzunkizunik izango.

9. Zerbitzu medikuak egongo dira DYAren eskutik.

10. Korrikalariek, izena ematen dutenean, araudia onartzen dute.

11. Partaide guztiek Nafarroako Triatloi Federazioko epaileen esanak beteko dituzte, arautegi hau betetze aldera.

6. INFORMAZIO INTERESGARRIA

- Froga bukatu ondoren partaideak Arbizuko kiroldegian dutxatu ahal izango dira.

- Zalantzak argitzeko edo proposamenak egiteko antolakuntzarekin harremanetan jarri kirolak@sakana-mank.com helbidean edo 948 46 48 66 telefonoan.

ANTOLATZAILEA:
ARBIZUKO UDALA

Adeitasunez.

Arbizuko Udala